

## Austarri Mendi Taldeak mendi jardunaldiak antolatu ditu Zeberion

11. orrialdea

## Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa Igorren hilaren 25ean

Bertan, Eneko Abasolo "Abarkas", Malen Amenabar, Oihana Bartra, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal eta Beñat Ugartetxea neurtuko dira finalerako pasea lortu guran. Finala, abenduaren 15ean jokatuko da Bilbao Arenan. 12. orrialdea



## Maurizia Aldeiturriaga panderojolearen familia material bila dabil

13. orrialdea

# begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

# 306

2018ko zemendiaren 15a  
hamabostekaria  
www.begitu.org



## Matxismoaren kontrako manifestazinoa Igorren

Zemendiaren 25a Andakanako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna da, eta Arratiako andra taldeak, talde feministak, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) eta udalak ekintzak antolatu ditue gizarte indarkeria honen kontra sensibilizatu eta mobilizatu daiten. 5. orrialdea



Igazko zemendiaren 25eko manifestazinoa.

## Zemendiaren 23tik abenduaren 1era, Euskaraldian parte hartuko dau Arratiak.

Areatzak, Arteak, Bediak, Dimak, Igorrek, Lemoak, Zeanurik eta Zeberio hartuko dabe parte. Ariketeaz gainera, jarduera kultural ugari egongo dira herri honeetan. Beti be ahaztu barik helburua hizkuntz ohiturak aldatutea eta euskerearen erabilera sendotzea dala. 8. eta 9. orrialdeak

### UBIDE

## Bidekurutzea seguruago egiteko akordioa lortu dabe aldundiak

Ubideko sartukerea eta urtekerea dan N-240 errepideko bidekurutzean segurtasuna hobetuteko akordioa lortu dabe Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Akordio honen arabera, aldundi biak konpartiduko dabe egin beharreko inbersinoa. Errail luze eta zabalagoak egingo ditue ezkerretara jotea eta abiadura aldatutea seguruago izateko. Lanak datorren legegintzaldian hasiko dirala aurreikusten da. 7. orrialdea

### IGORRE

## Fair Saturday ekimenari lotu jako Igorre

Black Friday konsumoa sustatzen dauan egunari aurre egiteko, Fair Saturday mundu mailako ekimena sortu zan Bilbon oin dala lau urte. Ekimen honek, kultura konsumo solidarioa bultzatu gura dau eta mundu osoan arrakasta handia izan dau. Aurten, lehenengoz Igorre be batu da ekimen honetara.

Hori dala eta, zemendiaren 24ko 00:00etan, poesia eta musikearen gaua antolatu dabe Igorreko liburutegian. Han, Silvio Rodriguezen kantuak jo eta kantau egingo dabez, eta poesia errezitaldiak eta beste sorpresa asko egongo dira.

Iluntzean, Luis Iruarizaga Abesbatzak, Arratiako Musika Eskolakoak eta ludotekako umeak kontzertua eskainiko dabe Kultur Etxean. 7. orrialdea



## ARTEAKO UDALA

ARTEAKO ATERPETXEAREN LEHIAKETA PUBLIKOA  
(EKOMUSEOA IZANDAKOA)  
15 urterako esleipena

### Bete beharrekoak:

36 lagunentzako aterpetxe turistikoa sortzea

Taberna eta jatetxearen kudeketea aurrera erotea

Oilaskoteria izandakoa berreskuratzea uda garaian

- Proiektuak aurkezteko atzen eguna azaroaren 20a izango da
- Pliegoak [www.artea-udala.org](http://www.artea-udala.org) helbidean dagoz

# Literatura txokoa

## HIZTUNPOLISA. EUSKALTASUNAREN NORABIDEAZ APUNTEAK

Jon Sarasuak 2013ko urri lehenengoan argitaratu eban *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak* ekarri gura dot gaur gogora gaurko literatura txoko honetara. Pamiela argitaletxeko saio eta testigantza sailaren barruan sartuta egon arren, bai azpitoluak adierazoten dauan modura, eta bai idazleak berak aurkezpen orrietan dinoan legez, apunteen modura idatzita dago liburua.

Gure herrian hamaika gara euskereari asko eta asko zor deutsagunak eta berari esker bizi garanak, dala gure amets, jarkera, ideologiaren zuztarretan sartuta daukagulako, edota gure ogibidearen funtsezko zutabea bihurtu dogulako. Tartean dago Sarasua

bera be eta bere apunteen bidez azken mende erdian euskaldunok egin dogun ibilbidearen pintzelada garrantzitsuenak biltzean ditu liburuan. Bide hori egin dogunok lerroetan esaten danaz eta lerroartean iradokitzen danaz erraz identifiketan gara.

Lehen atala osagarri materialakoa, eskaintzen jakie; hau da, pentsamentu, idea, balio edo ametsak bezala inorganikoak diran elementuak. Bigarrena, barriz, osagarri organikoak; bestela esanda, euskalduntasunaren norabidean beharrezkoa dogun ekintzarako pentsamentuari. Aurreneko atalak idazleagaz identifiketan laguntzen badau, azken atal honek egiten dogunaz eta egin beharko geunke-

naz hausnartzeko itzelezko balioa dauka. Horrexetarako, hain zuzen be, daukat nik *Hiztunpolisa* mesanotxean eta aldian behin puntu pare bat edo kapitulu osoa barrira irakurriz norberaren egitekoaren betaurkoetatik gailan sakontzen laguntzen dau.

Amaitu aurretik gogora ekarri gura dodaz, Sarasua bidaide izan dogunontzat hain esanguratsu izan diran bere bertso, berbaldi, klase edota idatziak; neuretzat batez be *Ertzeko Zatiak* (2010, Argia) edota *Biziaren hizkuntzaz: Txepetxekin solasean* (1998, Gara). Edozelan be *Hiztunpolisa* aukeratu dot gaur, bertan maisuak euskerearen poliedroaren arpegi guztiak zintzotasunez, hurbiltasunez, maitasunez eta egundoko heldutasunagaz jorrazten ditalako.

**Jasone Aldekoa**

**Jon Sarasua**

**Hiztunpolisa**

**Pamiela argitaletxea, 2013**

**368 orrialde**



### TELEFONO INTERESGARRIAK

#### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

#### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

**Zemendiaren 12tik 18ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

**Zemendiaren 19tik 25era**

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.  
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

**Zemendiaren 26tik abenduaren 2ra**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

#### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

#### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

#### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

#### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

#### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

#### Bizkaibus 94 612 55 55

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi orduko behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi orduko

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi orduko

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arrigorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

### Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Alvaro Rabelli.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Goizalde Badiola (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tirada:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Ez isildu

Zemendiaren 25ean, Andrakano Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna ospatzen da.

Animozko, laguntzazko eta konzientziatzeko berbak, ez dira larri inportanteak edozein indarkeria mota sufriduten daben andrentzako, baina balio dau guztiak batzeako burruka baten alkarre-gaz egoteko.

Andrazkoa, bizitza emoten dauana da, min egiten badeutsazu andra bateri, munduari be min egiten deusazu. Gizonen eta andren aurretik, danok personak gara. Gizonen eta andren desbardintasuna bakarrik dago azalaren sakontasunean. Antzekotasunak, bihotzera joaten dira. Gure adimenak sortu egiten dau, baina indarkeriak suntsitu egiten dau. Mundua, zarratutako ukabila baino handiagoa da. Ez egin ezelangotratu indarkeriagaz, beti galdu egingo dozu. Andreaken begietara begiratu eta bere sufrimentua ikusi. Nahiz eta zure arazoan errudun ez izan, konponbideen arduraduna zeu zara-eta. Indarkeria, besteen ideai bildurra izatea da. Gizonak ez zaitu jotzen altua edo bajua, argala edo lodia, tontoa edo inteligentea, lizentziatua edo ezjakina izateagaitik... jo

egiten zaitu andrazkoa izateagaitik bakarrik.

Ez isildu andrakanako indarkeriaren aurrean, lagundu egoera honetatik pasetan dagozan andrazkoai eta indarkeria salatu!

ANDONI VAZQUEZ

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazteko. Argitaratutako derigorezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)


BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Nabar



Eguna guztiz zabaldu arte, eta gaua guztiz sartu arte, argitasun nahikorik ez dagoan tarte horretako argitasuna nabarra dala esaten da (nabarra, ahoskatuta). Horren adibide honako berbak: egunabarra, goiznabarra, ilunabarra izenak edota nabartu aditza. Nabar berbea kolorea adierazteko be erabilten dogu: personen begi-nabarrak edo animalia batzuen kasuan (idi nabarra, zekor nabarra...), euren narruaren kolorea nahiko iluna danean.

## ERETXIA

### Probokazino bonbak bakearen izenean

Askotan esan deuste nire testuak pentsau arazo egiten dabela. Proposatutako gaiagaz irakurlea ados edo kontra egon daitekela, baina beti ixten dabela erreflexino kutsu bat. Inoz ez dot pentsau izan nire eretxia hain garrantzitsua danik inoren ideak zapaltzeko, baina pentsau arazoteko gogoia erakartea ondoetorria izango da beti. Ez da erraza txikitatik erakutsi deustuenaren kontra egitea edo, gitxienez, kolokan ipintea, baina gizartea ulertzeko beharrezkotzat jo beharko geunken praktika bat da. Hori homosexuala da, eta hango hori, heterosexuala. Alboko hori espainol sentitzen da, eta beste ha euskaldun. Bestea ha kristaua da eta ha, barriz, agnostikoa. Desbardinak gara danok, bestela mundu hau oso aspergarria izango zan. Danok daukagu eretxi bat, eta danok uste dogu gurea onena dala eta beste guztiak oker dagozala. Adibidez, gaur egun gure herriak bizi dauan alkar ulertze horren oinarri garrantzitsuenak enpatian eta erreflexino horretan finkatuta dagoz.

Bonba hotsak poderea lortzean dabenean, isiltasunak ez dauka zereginik. Adrenalina eta bildurraren arteko nahastea konbinazino itzela izan ohi da billete eta txanponak jantzalekua hartu eta etenbarik jantzen ibilteko. Poderetsuen boltsikoak ez dabe atsedenerako denporarik eta, betiko moduan, piramidearen lehen espaloira igo ezin dabenen kaltetan izaten da. Armak izan dira betidanik gizartearen soinekorik itsusiena. Balak, bonbak, tankeak eta abarrak miloeka hilerri eregi ditue gure munduan zehar. Honek, galdera asko sortzean ditu: Zein da ona? Zein da gaiztoa? Nork dauka kontzientzia garbi? Benetan izan leike kontzientzia hori garbi? Arazo handiena hori



IMANOL SALVADOR

Idazlea

asko be ez. Eurei armak saltzean deusteen personak, gero arma horreen erruz hildako personen hiletetara joaten dira, tokatzen jakien familiarrai eskua emotera, mundu hipokrita honen arpegi zehatzena erakutsiz.

Baina hori beste kontu bat da (batzuetan burua joaten jata, eza-gutzen nauanak ulertuko dau), eta terrorismoaz berba egiteko ez gara horren urrun joan behar. Gure herriak asko daki-eta horretaz, eta ondo daki zer dan terrorismoa eta zer ez dan. Hona hemen gaurko gaia, Altsasu. Zemendiaren 4an gertatutakoak helburu bakar bat eukan, probokazinoa. Eta helburu bakarra hori danean, aurretik azaldutako alkar ulertze horren osasuna kolokan jartzen da.

Justiziaren balantza trukaturatuta dago. Haren aingeru mozorroaren azpitik tunika baltza eta sega ikusi daitezke. Itsua dala dinoe, baina nire ustez, eskoieko begitik oso ondo ikusten dau, ezkerrekoa iluntasunean itxiz. Antzezlan honen bukaera negargarria da, baina oindino tristeagoa da politikari talde batek, gure zergakaz jaten dauan politikari talde batek, hartutako ebatzia. Eskuan pistola bat daroenak ezin dabe bakeaz berba egin. Eta oindino gitxiago helburu bakarra komunikabideen aurrean jainko moduan agertzea danean, benetan deabruaren minaz baliatzen diranean mikrofonoen bitartez sua botateko.

Hasikeran esan dodan moduan, danok daukagu eretxi bat, arazoa eretxi horren erruz gazte talde baten bizitza trunkatzen danean dator. Mundua ez da kontu erraza eta oindino gitxiago errealdadea. Poderetsuak gura dabena egin ahal dabela uste dabe, eta zemendiaren 4an Altsasura hurreratutako bufoiak pentsakera hori txalotu baino ez dabe egiten, herri honen bake prozesua harriak jaurtiz apurtu guran. A, eta hori guztiori bakearen izenean, jakina!

Togadunen eta boto saltzaile askoren berbak diana bakartzat herria hartzean dabe. Antzezlan amaitutzat emon gura dabe, baina herriak teloitik tiraka jarraituko dau.

## LUMATUTEN

MAITE ARTABE  
URKIRIBerba barria  
beste ahots  
erregistro baten

**A**maia Lasak bere lehenengo poesia liburuan inoan a, e, i, o, u barri bat asmatu gura ebala bere andra ahotsa plazaratu ahal izateko, ez ebala-eta aurkitzen horretarako baliodun erreferentrik euskal letretan.

Neu be aspaldion berba baten eta ahots erregistro baten faltan nabil.

Berba bat asmatu gura neuke eraiketa matxista bat gertatuten dan bakotxean sentiduten dodana adierazoteko. Sentiduten dodana eta pentsetan dodana, barruntetan dodana eta seguru dakidana. Arima eta gorputza leuen berbea, erraiak eta azala, burua eta bihotza.

Berba bakarra, manifestu guztiak ordezkatu leukezana, ideologia eta emozinoak batuko leukezana: feminismoa justizia egarriagaz, amorrua

alkartasunagaz; indarra tristeziagaz, nazka errukiagaz, bardintasuna harrotasunagaz, pazifismoa burrukeagaz.

Eta berba hori hiltzen gaituan sistema honen kontra jaurtiteko, ahots erregistro barria be beharko neuke. Erregistro horrek sopranoaren lirismo tragikoa beharko leuke, mezoaren karakter indartsua eta kontraltoaren iluntasun puntua.

Andra guztion ahotsak batuko leukez; tonu, kolore eta tinbre guztiak batera koru hobetoekin enpastaduan, eta gizartea leuke erresonantzia kaja erraldoi.

Dana beharko neuke; dana da-eta gitxi gure askatasunerako bidean erail dabezaren memoria gordetako: gure hildakoak dira eta izen-abizenak daukiez. Euskal Herrian gutako bat erailten daben bakotxean, hurrengo egunean Igozren alkareratzea egiten dogu zapietan ordu erdian; zer gitxiago!

Gura neuke hainbat herritan egiten diran alkareratze horreek gure arbasoak deiadar-mendietan egindako deien eragin bera izatea, Bizkaian ezeze Euskal Herrian be, eta gizarte osoak erresonantzia kaja bakar baten moduan berba hori erregistro horretan ozen eta argi errepikatutea.

## ZERTZEAN



## JANIRE LOPEZ

**A**rrastu dau etzeko belazean. Gailendu egin jatzuz apatx urrunen oihartzun hordigarriak, larru-arrakala barrien mahasti promesak.

Eguzkia etzan da zurda ezezagun orotan, gari-zuriak galda-bizian, eta setiatzen gaituen hesia jo dau, gogotik, zure nahiezak.

Zapaldu egin dozuz, maldan behera, suge-ilar ihartuak; laurdendu, pilatutako amets goroldiotuak.

## Beste belaze batzuen gozoan

Goza itzazu artobeltzak, eta konkor berri bihurrituak. Ondozak esnetan busti, laztana, gautu aurretik, aberetzar barrien musturren bazkan,

adarbakarra zara orain txostan, beste belaze batzuen gozoan.

\*Eskean Kristo Taldearen *Zaldiak Negarrez* kantuan oinarritutako poema.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**D**atorren urteko maiatzaren 5ean, eguerdiko 12:00etan, herriko plazetan ikusiko gara.

Zemendiaren 11n, Artean, Europa osotik batu garan 300 lagunek Europako hauteskundeetara begira martxan jarri dogu iniatiba bat: M5 Herrien Besarkada.

Dei egiten deutsegu persona eta mobimentu guztiak ekimen honeguz bat egin eta Europako uri eta herri gehienetan mobilizazio bateratu bat egitera. Europako gotorlekuaren aurrean, herrien harrera, alkartasuna eta babesa irudikatuz

Aratiatik Europa eta Europatik mundura ezetz esango deusagu faxismoari, ezetz esan personeren kontra dagoan neoliberalismoari, patriarkaduari eta elite politikoari, ezetz esan europar migrazio politikak diskriminatzaileak.

Eta baietz esango deusagu personeren arteko harrerari, alkartasunari eta babesa emoten dagozan beso zabalai.

Gure besoakaz hurbiltasuna eta beroa adierazoten dauan besarkada erraldoi bat sortuko dogu eta horren bitartez munduari esan persona guztien bizileku eskubidea eta zirkulazio askea aldarrikatu dogu.

Ez ahaztu! M5 Herrien Besarkada.

**Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48, 142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisci.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zentzuak 101  
R.P.S. 3/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERA  
Bilakaia, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 621 64 83 - 908 884 019

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

## ARRATIA

# Manifestazio zaratatsua egingo dabe Igorren indarkeria matxistearen aurkako nazinoarteko egunean

Zemendiaren 25a Andranako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna da, eta Arratiako andra taldeak, talde feministak, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) eta udalak ekintzak antolatu ditue gizartea indarkeria honen kontra sensibilizatu eta mobilizatu daiten. Izan be, ezin da aitzu, andren kontrako indarkeria, bardintasun ezaren adierazpen larriena, mundu osoan egiten dan Giza Eskubideen urraketea dala. Urtero lez, taldeak eta erakundeak kartel bateratua prestatu dabe.

### Erredakzioa

Karteleko ekintza nagusia, hilaren 25eko Arratia mailako manifestazio zaratatsua izango da. Manifestazioa, Igorren Kultur Etxean hasiko da 12:30ean, "Androk martxan, matxismoari planto!" lelopean.

Zeberioko andrak Bilboko manifestazioan azalduko dabe indarkeria matxistegaz amaituteko beharra "Danok zu! Nahikoa da!" lelopean. Bilboko manifestazioa Bihotz Sakratutik urtengo da 12:00etan. Euskal Herrian, 2018an, 6 andra kontabilizatu dira indarkeria matxistek erailda.

### Ikastaroak, berbaldiak eta dokumentalak

Arratiako karteleko lehenengo ekintza zemendiaren 9an izan zan, Arantzazuko Kultur Gunean. Egun horretan, Toti Martinez de Lezea idazleak, *La mujer vasca a través de la historia* berbaldia egin eban. Martinez de Lezeak bere idazle ibilbide luzean eta andrazkoen historia ezkuaren gaineko pasadizu, gertaera eta datu ugari ditu, bere liburuetako pertsonajeak sortzeako dokumentazio lan handia egin dau-eta.

Hurrengo zitea Bedian izango da. Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako programazioaren barruan dagoan *Activa tu voz* ikastaroa, hain zuzen be. Zahira Montalvo Herrero emongo dauan ikastaroak hiru saio izango ditu. Lehenengoa barikuan, hilak 16 izango da 17:00etatik 20:00etara; bigarrena hurrengo egunean, 10:00etatik 13:00etara eta atzena domekan, zapatuko ordutegi bardinagaz. Bedia eskoletan izango da eta partaideak ahotsa erabiltzeko moduaren jakitun egingo dira eta modu osasuntsuan proiektetan ikasiko dabe.

Lemoako Gaztetxean, andren salerosketaren gaineko *Blessy* dokumentala ikusteko aukerea egongo da zemendiaren 16an 20:30ean. Dokumentala lan ko-

lektiboa da eta bertan, egoera hori sufridu daben lau andrazko emoten dabe euren bizipenen barri. Hau da, biktimai eurari emoten deutse ahotsa dokumentalak.

Zemendiaren 22an, Zeanuriko Kultur Etxean, 19:00etan, Bertha Gaztelumendik zuzendutako *Volar* dokumentala ikusteko aukerea izango da. Hemen, tratu txarrak bizi izandako andrazkoak euren esperientziak eta egindako bizi ibilbidea kontetan dabe. Pelikulearen ostean, solasaldia egongo da.

Hurrengo egunean, antzerkia egongo da Dimako Eskolako Aretoan. *Isilduen museoa* antzezlana izango da taularatuko daben antzezlana 19:30ean. Areatzan be antzerkia dago programata hurrengo egunerako, hau da An-

drakanako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Egunaren bezperarako. Atx Teatroak *Tomiris. Mendeku zilegi baten istorioa* antzeztuko dau 20:00etan. Antzezlaren ardatza indarkeria matxistea da eta errealidadea eta fikzioa nahasten ditu. Kontakizuna, "gordin bezain sensuala, erreal bezain fantastikoa, zorrotz bezain zolia" da.

Hilaren 29an, liburuforuma egingo dabe Artean. Kultur Etxean dagoan Andran Gelan izango da arrastiko 18:00etan. Eta hurrengo egunean, hilak 30, Kankaneo Teatrok *Pa ti pa mi* antzerki inprobisazio ikuskizuna ekarriko dau Igorren Kultur Etxera 20:00etan. Ikuskizuna, Zahira Montalvo eta Elba Ruiz Moralesen eskutik izango da.

Beste ekintza batzuk be antolatu ditue herrietan. Ekintzok "indarkeria matxistearen aurkako burrukan konzientziak biztutea eta sensibilizetea daukie helburu" dino Oihane Zulet AUMeko Bardintasun Teknikariak.

Zeberion be, hainbat ekintza

rako hormairudia egin eben leku berean. Mezua aldatuko dabe, oingoan, "Danok zu! Nahikoa da!" manifestazio leloa adieraztea gura dabe-eta.

### Gazteak Beldur Barik

Aurten be, Arratiako gazteak euren bideoak aurkeztu eta Beldur Barik Lehiaketa orokorrean eta Arratiakoan parte hartzeako aukerea izan dabe. Arratia mailako sari banaketea hilaren 23an izango da Arteko Kultur Etxean, 18:00etatik aurrera. Photocall-a egongo da eta txapak egiteko eta kamisetak serigrafietako tailerrak. Hurrengo egunean, Gasteizen, Beldur Barik topaketea izango da.

Indarkeria matxistearen kontrako burrukan gazteen inplikazioa lortzeako eta Beldur Barik-en harira, ikastaro bi antolatu ditue Arratian. Zemendiaren 9 eta 10eko neskenzako autodefensa feminista ikastaroa egoan programata baina bertan behera geratu zan gitxi emon ebela izena.

Beste ikastaroa mistoa da, neska eta mutilai zuzendutako grafiti



Igazko Beldur Barik Lehiaketako sari banaketako irudi bat.

antolatu ditue. Hilaren 15ean, aniztasun afektibo-sexualaren gaineko tailerra, barbarako. Tailerra, Zubialde eskolako 5. eta 6. mailako ikasleentzat da. Zemendiaren 19 eta 25 arteko astean barriz, Amaia Atorrasagasti margolariak eta herriko andrak hormairudi kolektiboa margotuko dabe kaminoan, igazko martiaren 8ko greba-

ikastaroa, hain zuzen. Gitxieneko kopuru batek izena emon ezker, saio bi izango ditu, hilaren 17an bat eta 23an bestea. Diseinua eta pintaketa lanak Eva Mena grafiti egileagaz egingo dabe. Diseinua egin aurretiko hausnarketea bultzatzeko, Gaizka Tobar maskulinitate barrietan aditu eta Bardintasun Teknikaria egongo da.

## ZEBERIO

**Artisautza, baserriko produktuak eta abereak Bertoko Produktuen Zeberio XX. Azokan****Erredakzioa**

Zeberioko Bertoko Produktuen Azokeak hogeitau beteko ditu aurten, sasoi betean. Zehemendiaren 25ean izango da 10:00etatik aurrera eta bertan 35 salmenta postu inguru egongo dira; Zeberioako bertakoak dozena bat inguru. Urtero lez, Zeberioko abeltzain alkar-teak euren ganaduen erakusketa egingo dau eta Oier Elorduyk forjalanen erakustaldia.

Artisautzari jagokonean, zidarezko eta egurrezko produktuak; kremak, Ubiden egindakoak tartean, eta eskuz egindako beste produktu asko egongo dira salgai. Baserriko produktuen artean, ortuariak, ogia, gaztaia eta ezta ez dira faltauko. Zeberioko ganadua be egongo da ikusgai: terrena errazako behiak, ardiak eta behorrak, besteak beste.

Herriko trikitilari gazteak alaituko dabe giroa.



## IGORRE

**Gizon bi atxilotu ebazan Ertzaintzak heroinagaz trafikatzegaitik****Erredakzioa**

Zehemendiaren 7an, Ertzaintzak 45 eta 46 urteko gizonetako bi atxilotu ebazan Igorren, osasun publikoaren kontrako delitu bat leporatuta.

Ertzaintzaren iturrien arabera, Ertzaintza ikertzen egoan gizonetako bi arrastiko ordu bata aldera Igorreko aparkaleku baterantz joan ziran ibilgailu baten. Handik minutu batzuetara, beste auto bat iritsi zan eta euren ibilgailuaren ondoan aparkau eban. Apur baten zain egon ondoren, susmagarrietako bat beste ibilgailura hurreratu eta gidariagaz hartu-emonetan ipini zan, eta, antza, droga transakzino bat egin eben. Agentek hirurak identifikatu eta marroi koloreko substantzia bat, ustez heroina, eukan boltsatxo bana topau eutseenez, ustezko sal-tzaileak atxilotu ebazan.

Euretako batek aurrekariak ditu antzeko delitu batengaitik, eta biak eroan ebazan epailearen aurrera.

## DIMA

**Maider Latatu dimoztarrak saria jaso dau *Motxilaren umea* filman egindako interpretazioagaitik****Erredakzioa**

Maider Latatu dimoztarrak, 12 Months Film Festivaleko zehemendiko andrazko aktorearen lehen saria jaso dau *Motxilaren umea* filman egindako interpretazioagaitik. Errumaniako online eta offline zine jaialdi honek, sei kontinenteetako film laburrak bultzatu eta saritzen ditu. Hau da, mundu mailako saria izan da Dimako umeak jaso dauana bere aktore lanagaitik.

**Zeanurin eta Diman *Azken arnasa* arte filma**

Kurkuxetan Kultur Elkartearen beste film labur bat, *Azken arnasa* arte filma, ikusgai egongo da Zeanu-

rin zehemendiaren 16an, 19:00etan, Kultur Etxean, eta Diman 30ean, 19:00etan Abaroa Aretoan.

Filmak familiako bat espetxean daukien edadekoak omendu gura ditu. "Gure nagusiak, gure aititamaamak egundoko garrantzia izan dabe guretzat betidanik, oindino gehiago egoera latzetan. Film honetan, espetxeak erortzen dauan egoera gogor baten aurrean gure nagusien jarkerea islatzen da" dinoe egileak.

Rita Naveira eta Koldo Zelestino Dimakoa dira pelikulearen zuzendariak. Euren aurreko lanean, *Motxilaren umea* filman, ama espetxean daukan umea izan zan protagonista. Oin, seme-alabak espetxean daukienean ikuspuntutik heldu deusie gaiari.



Itziar Ituiño eta Maider Latatu.

## ZEANURI

**Asterriko San Andres jaiak auzokoen artean disfrutatuko****Erredakzioa**

Zehemendiaren 30ean San Andres eguna ospatuten da eta jaiak dira Asterrian. Egun horretarako eta hurrengo egunerako, auzokoak disfrutatuko moduko jaiak antolatu ditue.

Zehemendiaren 30ean, barikuan, jaiari hasikerea emongo deusie San Andres ermitako mezeagaz. Ondoren txokolata bananduko dabe ermita ingurura hurreraten diran guztien artean, herriko triki-

tilari eta txistulariak giroa alaituten daben bitartean. Bederatzietan, Asterria auzokoak, alkarregaz afalduko dabe auzo afarian.

Hurrengo egunean, Julen Etxebarria eta Jon Itxaurbe trontzan, Beñat Mendia eta Irati Astondoa azkoran, eta Mikel Etxebarria ardi mozten neurtuko dira arrastiko 18:30etik aurrera, eta Harriti taldeak harriak arrastetako erakustaldia egingo dau.

Amaitzeko, Adolfo Jainaga eta

Unai Narbaizak animauko dabe zapatuko gauba euren trikitixa eta panderoaren soinuakaz.



## ARRATIA

**Behartsuakaz alkartasun afaria antolatu dau Arratiako Caritasek****Erredakzioa**

Salda beroa eta ogi zati bat, horixe izango da Behartsuen Mundu Mailako Eguna dala-eta, Caritasek antolatu dauan alkartasun afariko menua. Borondatea edo menuaren kostua izango da prezioa eta batutako dirua

Askabide alkartearentzat izango da. Afaria zehemendiaren 16an, 19:30ean, izango da Igorreko eleizaren lokaletan.

Hurrengo egunean, zapatuan, 12:00etan Arratiako parroquia eta ermita guztietako kanpaiak joko dabe "alkartasunerako dei eginaz".

www.bertsozale.eus/bizkaikobapelketa  
www.bertsosarrerak.eus

**bbt18**  
Bizkaita Bertsozalei Txapelketa 2018

**FINALAURREKOA**

**IGORRE**  
Azaroaren 25ean, domeka, 17:00etan, udal kiroldegian

Behal Ugaitzokas Oskakoa, Eneko Aguirre Txakurri "Agaur", Maier Ametzarbur Larrañaga, Nerea Iturbal Salgo, Oihane Barria Añena eta Oihane Erbeito Mugang

Antolatzailea: Bizkaia  
Bideratzailea: bbk  
Laguntzailea: begitu

**alkartasun afaria**

"behartsuak gogoan izan" (Ga 2,10)

**BEHARTSUEN MUNDU MAILAKO EGUNA**

**MENUA:**  
Salda beroa eta ogi zati bat

**SALNEURRIA:**  
menu baten kostua edo borondatea

**EKARRI:**  
Umorea eta alkarbanatzeko gogoa  
Dirua ASKABIDEra bialduko da

Azaroak 16, barikua, 19:30  
Igorreko eleizaren lokaletan

Caritas Arratia

## IGORRE

# Poesia eta musikearen gaua zapatu justu baten alde



### Erredakzioa

Artea eta kultura bidez mundua aldatuteko helburua dauka *Fair Saturday* (zapatu justua) oin lau urte Bilbon sortutako ekimenak. Inpaktu soziala daukan kultur mobimentu globala da eta *Black Friday* konsumoaren jaiari erantzuna emoteko sortu zan. Zehemendiaren atzen zapatuan izaten da. Aurten, London, Milan... ehundaka uri eta herri batu dira ekimen honetara; tartean Igorre.

Proiektuaren bultzatzaileak aurreko hilean aurkeztu eutseen ekimena Igorreko hainbat kultur eragileri. "Egon ginan, Janire Lopez Kultur Etxeko arduraduna, Luis Iruarizaga Abesbatzakoak, Arantzarteko ordezkari bat, Ainhoa Zuluaga kultura zinegotzia eta neu liburutegitik. Pentsau genduan ez egoala denpora handirik patxadazko zeozer egiteko, baina bai lehenengo lur hartze moduko baterako" azaldu deutso BEGITURI Irupe Elexpe liburutegikoak. Eta holan, jarraitu eta hazteko asmoagaz ekingo deusie Igorren euren

lehenengo *Fair Saturday*-eri.

### Gau eta eguneko jarduerak

Zehemendiaren 24ko 00:00etan abiatuko da "zapatu justua" liburutegian egingo dan poesia eta musikearen gauagaz. "Silvio Rodriguez gure artean" izena ipini deusie liburutegiko gaueko ekitaldiari eta Arratiako musikari batzuek kantatutore kubatarraren kantua jo eta kantauko dabez. Ondoren, poesia musikatu eskainiko dau Dimako taldeak eta errezitaldia Areatzako Maite Artabek. Liburutegia modu intimistan apainduta egongo dala dino Elexpek. "Ez dago amaituteko ordurik. Gustura gagozan bitartean jarraituko dogu. Liburutegia geurea izango da gau horretan" gehitu dau.

Ez da zapatuko kultur jarduera bakarra izango. Arrastiko 19:00etan, Luis Iruarizaga Abesbatzak, Arratiako Abesbatzak, Arratiako Musika Eskolako umeak eta ludotekakoak kontzertua eskainiko dabe. Arantzarte taldearen jantzak eta kale antzerkia be programata dagoz kulturea ardatz izango dauan zehemendiako atzen zapaturako.

## ARTEA

# Basoen egoera aztertuko dabe

### Erredakzioa

Zehemendiaren 22an, Keko Alonso biologoak *Basogintza Bizkaian. Eta orain, zer?* izeneko berbaldia emongo dau Kultur Etxean arrastiko 19:00etan.

Arteko Udalak eta Kolore Guztietako Basoak plataformeak antolatuta, Bizkaiko basoen egoera aztertu eta basogintzearen kudeaketarako proposamenak egingo dira bertan.

Basogintzearen arloan kezka handitu da zerrenda marroi deritxan pinuen gaixotasuna zabaldu

danetik. Bizkaiko Foru Aldundiak, garagarrilean gaixotasunak zenbateko azalera hartzean dauan jakiteko azterketa bat egin eban. Azterketa horretan zehaztu zan 16.000 hektarea egozala kaltetuta.



## ZEBERIO

# Txekia, Finlandia, Polonia eta Letoniako ikasle eta irakasleak Zeberion

### Erredakzioa

Europako lau herrialdeetako zortzi irakasle eta 19 ikasle egon dira Zeberion zehemendiaren 5etik 11ra. Zeberio Zubialde eskolea Erasmus+ proiektuan sartuta dago. Proiektu honen helburuak, irakasleak Europako Hezkuntza Sistemak eta metodologiak ezetutea eta ikasleak autonomia garatzea, beste herrialdeetako kultura ezetutea eta estereotipoak baztertzea dira, besteak beste. Zubialde eskolako 6. mailako ikasleak Finlandiara eta Txekiara joango dira. Gela erdia Finlandiara joango da urtailean eta beste erdia Txekiara maiatzean.

Zeberio eskolea 1999-2000 ikasturteetik dago sartuta proiektu honetan. Hasikeran, Comenius izena eukan eta gaur egun Erasmus+. "Proiektuan gai komuna garatzen da eskola guztietan aldi berean. Horretarako koordinazio bilerak egiten dira bidaietan eta unidate didaktikoak be sortzean

dira" azaldu deutso BEGITURI Nuria Korta Zubialde Eskolako irakasleak. Proiektu honen koordinatzailea Izaskun Garrote da Zeberio eskolan.

Txekia, Finlandia, Polonia eta Letoniako ikasle eta irakasleak, Zeberio ikasleen familien etxeetan egon dira. Familien laguntza barik ezingo ebela proiektu



Ikasleak Donostian.

## UBIDE

# Bidekurutzea hobetuko dabe Araba eta Bizkaiko aldundien diru laguntzakaz

### Erredakzioa

Ubideko sartukerea eta urtekerea dan N-240 errepideko bidekurutzean segurtasuna hobetuteko akordioa lortu dabe Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Akordio honen arabera, aldundi biak

konpartiduko dabe egin beharreko inbersinoa.

Araba eta Bizkaiko mugetan dagoan N-240 kaminoko bidekurutzea txikia eta estua da eta horrek segurtasuna baldintzatzen dau. Lanokaz errail luze eta zabalagoak egin gura ditue, ezkerretara jotea eta abiadura aldatutea segurua izan daiten.

Araba eta Bizkaiko mugetan dagoan N-240 kaminoko bidekurutzea txikia eta estua da eta horrek segurtasuna baldintzatzen dau. Lanokaz errail luze eta zabalagoak egin gura ditue, ezkerretara jotea eta abiadura aldatutea segurua izan daiten.

### Lurralde biren artean

Bidekurutzea arriskutsua izan arren, lurralde biren mugan egoteak atzeratu dau konponketea. "Ubideko Udalak aspalditik egin izan dauan eskaerea izan da. Legegintzaldi honetan aldundi biak hartu-emo-netan modu serioago baten ekin jakon. Errazoa da, eta zailtasuna be bai, egin beharreko lana, neurri handi baten Arabako lurretan dagoala eta Ubide herria Bizkaiko udalerria dala. Ubideko Udalak aldundi bien arteko hitzarmen hori oso positibotzat hartu dau. Espero dogu hurrengo legegintzaldian be hitzarmen horri atxikita jarraitutea" azaldu deutso BEGITURI Joxan Pagola Ubideko alkateak.

Akordioa lortuta, berau sinatzea izango da hurrengo pausua. Gero proiektua erredaktau egin beharko da eta lurren desjaubetzeari ekin eta ondoren, lanak esleitu. Hori guztiori kontuan hartuta, lanok datorren legegintzaldian hasiko dirala aurreikusten da.



## EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA ETA EUSKARALDIA

# Hamaika egun eta hamaika jarduera

Txapak paparrean ipini aurretik, zemendiaren 23an, jarduera kultural erakargarriak eskainiko dauz Euskaraldiak. Izan be, udalak eta herritarrak antolatuta, Areatzan, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin bideoak grabau dabez eta giro ederreko aurkezpenetan txapak banandu ditue herri askotan. Gainera, Euskaraldiaren harira, berbaldiak, kontzertuak eta ikuskizunak antolatu dira. Aurkezpenetan, informazio eta datuak, kantuak eta jantzak lagunduta emoten dabiz. Inor ez daiten geratu jakin barik Euskaraldia zer dan.



Areatzako udaletxea.

## Erredakzioa

Zemendiaren 9an, Zeanuriko aurkezpen ekitaldian, Eñaut Intxaurragak izena emon aurretik ondo pentsetako esan eban. Pentsetako zeintzuk diran bako-txaren hiztun sareak eta ea horreetan, euskera gehiago egiteko posibilitaderik dagoan. Ondo

pentsetako zein papeletan senti-duko dan bakotxa erosoago: hamaika egunetan, leku guztietan lehenengo berbea euskeraz egiten, eta orduan, ahobizi moduan izena emoteko; edo beste bategen inziatibea hartuta, euskeraz erantzuteko prest dagoanak belarriprest moduan emoteko izena. Izan be, Euskaraldia ez da jai bat,

hizkuntza ohiturak aldatzeko gizarke ariketa bat baino.

Hizkuntza ohiturak aldatu eta euskera gehiago egiteko beharra erakusten dabe datuak. Lemoak, herritarren euskerearen ezagutza eta erabilera datuak emon dauz jakitera sare sozialen bitartez. Euskaraldia ariketearen aurretik, honeek dira datuok. Umeak,

hamarretik 8,6k dakie euskerea, eta hiruk erabilten dabe. Gazteen artean, hamarretik zazpi dakie euskeraz eta 2k baino gitxiagok erabilten dabe. Helduak dira eza-gutza mailarik txikiena daukienak; izan be, hamarretik lauk baino ez dakie eta erabili bik erabilten dabe. Atzenik, jente nagusiari jagokonean, hamarretik seik dakie euskeraz eta erabili, 1,4k erabilten dau. Hamaika eguneko ariketearen ostean, inertzia batzuk aldatu eta erabilereak gora egitea espero da.

## Aurkezpen ekitaldiak

Ariketea ilusinoz hartu dau Arratiako jenteak eta ariketearen bezperetan jaigiroa da nagusi. Zeanuriko aurkezpen ekitaldia, herritarrak grabautako bideoaren proiektinoagaz hasi zan Kultur Etxean. Gero Zuriñe Iarrituk emon ebazan ariketearen gaineko zehaztasunak eta Zuriñe Elejaldek umorez betetako pasadi-zuak kontau ebazan, "euskaldun barrien eta euskaldun zaharren maitasun misterioak", hain zuzen be. Intxaurragak gero, zelan apuntau eta txapea jasoteko zer egin azaldu eban. Ondoren, aurkezpenean egondako guztiak, armairutik urten eta pintxoak jatera joan ziran, jubiladuen tabernara. Joan aurretik talde argazkia egin eban kantuan eta jantzan.

Diman be egun berean izan zan aurkezpen ekitaldia, herriko jakintzaren transmisiorako sortutako Jentiltxu eta Jentili personajeen laguntzeagaz. Aurkezpen lanak Ibon Izak egin ebazan. Umeak agurra jantzatu ostean, Abizarie alkar-

teak antolatutako Zizetan Argazki Lehiaketako sari banaketea egon zan. Ondoren, umeak egoera desbardin batzuen "kontu txatalak" egin ebezan eta bideoaren *making offa* ipini eban. "Barre piloa egin eban jenteak" dino Izak. Ondoren, bertsoak bota ebezan hamar neskatok eta egindako bideoa ikusi eban. Ahobizien izenean Haizea Ziarrustak eta belarriprest izenean Manu Cejudok egin eban berba eta amaitzeko zunba taldeak *Euskara gure lurra* jantzatu eban.

Areatzan, Euskaraldian izena emon dabeneztat edo zalan-tzan dagozantzat, Euskaraldiaren gaineko formakuntza saioa emongo dau Maier Ugartemendia UEMAko Tenikariak hilaren 15ean, 19:00etan, Udal Areto Nagusian.

Bedian, Beatriz Elgezabalek aurkeztuko dau Euskaraldia *Ttak!* umorezko bakarriketa baten bitartez. Zemendiaren 21ean izango da 18:30ean Bediako Liburutegian. Areatzan be egongo da, abenduaren 1ean, 12:30ean, udaletxearetoan.

Zeberion, "batzordea sortu zan, Udal Euskera Batzordea, eta hainbat lan egin ditu herritarren artean Euskaraldiaren gaia zabaltzeko. Herriko hamaikakoagaz diptikoak buzoneatzeaz gainera, mahaia be ipini da barikueta, plazan, jenteak izena emoteko" azaldu deutso BEGITURI Jon Bollar Zeberioiko Euskera Teknikariak.

## Hasikera ekitaldiak

Zemendiaren 23an, Euskaraldia ariketearen lehenengo egunean,

Arratia  
Ibide eta zeberioko  
euskerea  
eta kulturearen alde

Hamabostero  
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Degitu-Lagun

Iltxean jasoko dozuz zertu kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

lzen-abizenak:  
Itelbidea:  
Herria:  
Telefonoa:  
E-posta:  
Irrteko kuotea aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu





hasikera ekitaldiak be egingo dira hainbat herritan, Areatzan, Diman Igorren eta Lemoan, barbarako. Euskaraldia jaia izan ez arren, Areatzan, ariketeari hasikerea emoteko txupina botako dabe arrastian, txapen atzen banaketea egin eta Areatzako Bandaren kontzertua egongo da 19:30ean eleizan.

Lemoako hasikera ekitaldia be 19:30ean izango da Kultur-gunean. Han, hamaikakoaren aurkezpen publikoa egingo dabe eta, ezagutza eta erabilera datuak kontuan izanda, ariketa sozial honen garrantzia azalduko da. Ekitaldia amaituko da herrian ekimenagaz bat egin daben alkarte, komertzio eta tabernen bideoen aurkezpenakaz. Ekitaldiaren aurretik, 18:30ean, poteo musikatua egongo da Kresala tabernatik

hasita.

Igorren, Kantu bat gara eta Arratia Kantuz taldeak emongo deusie hasikerea Euskaraldiari 19:00etan, Gau Lora tabernan.

#### Hamaika jarduera

Euskaraldiaren harira, kultur ekitaldi ugari egongo dira Arratian, tartean hainbat berbaldi. Holan, Diman, Kike Amonarrirek emongo dau berbaldia zemendiaren 16an, 19:00etan Abaroa Aretoan. Aurkezlea, "Zergaitik Euskaraldia? Zergaitik orain? Zergaitik Diman? Gurago dozu Dima euskaldunago bat?" Eta, "egingo dogu?" moduko itaunai erantzuten saiatuko da.

Zeanurin, Arratiako hitanoaren



Zeanuriko aurkezpen ekitaldia.

inguruko berbaldia emongo dau Karlos Aretxabaletak hilaren 26an, Kultur Etxean, arrastiko 19:00etan, eta Zeberion, Juan Manuel Etxebarriak Zeberioko euskerearen balioaz egingo dau berba hilaren 30ean, 19:00etan, udaletxean.

Euskeraz berba egiteko aukerak gehitzeko, zemendiaren 9an, berbodormoa antolatu eben Lemoan. Areatzan be antolatu dabe eta zemendiaren 30ean izango da, 18:00etan helduentzat eta 19:00etan gazteentzat. Zeanurin, Berbalaguneko partaideak barikuro batzean dira tabernetan.

Jantza ikastaro irekia plazan zemendiaren 26an, 19:00etan; bisita gidatua herritik zehar Mikel Urriategaz eta "II. Euskerea plazara atara" herri irakurketea abenduaren 1ean, 11:30ean, dira Area-

tzan programauta dagozan beste ekitaldi batzuk.

#### Euskerearen Eguna

Euskaraldia, abenduaren 3an, Euskerearen Egunean amaituko da. Hamaika egunez euskeraz berba egiteko ariketan parte hartu daben herri batzuetan amaiera ekitaldia egingo da, ariketea amaitu arren, jenteari hartutako ohitura barriak mantendutuen animetan.

Euskerearen Egunean Bedian, Euskerearen aldeko leloentzako Irudien Lehiaketako eta Gabon Txartelen Lehiaketako sariak bananduko ditue liburutegian 18:00etatik aurrera. Amaiera ekitaldia frontoian izango da 19:00etan, eta bertan txokolatea bananduko da. Talde argazkia be egingo dabe.

Euskerearen Eguneko ekitaldia Euskaraldiko ariketari jarraipe-

na emoteko asmoagaz planteau dabe Lemoan. Iluntzeko 19:30ean izango da jubiladuen tabernan. Han, Udalak ariketeari jarraipena emoteko dituan baliabideak azaldu, Berbalagun egi-tasmoaren aurkezpena egin eta Larregi taldeak kontzertu akustikoa emongo dau hurreratzen diran guztientzat.

Areatzan, Guraso Elkarateak txokolatea bananduko dau arrastiko 18:00etan plazan eta gero, herri argazkia egin eta mezua irakurriko dabe.

Zeberion, Euskera Eguna be-launaldien arteko katea bisibilizauz ospatu gura dabe. Hori dala-eta, umeak eta jubiladuak taloak egingo ditue alkarregaz eskolan.

Beste herri batzuetan be egingo dira ekitaldiak Euskera Egunean.



Diman hilaren 9an egin zan aurkezpeneko irudia.

Indarkeria matxisteagaz amaitu  
herriak  
bizirik  
gura gaitu!  
ARTEAKO UDALA



DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA  
· Psikologia  
· Logopedia  
· Fisioterapia  
· Ulermen tailerra  
· Jarrera arazoak  
· Emozioen tailerra  
· Psikomotrizitatea  
· Adimen emozionala  
· Trebetasun sozialak  
· Estimulazio goiztiarra  
· Eta askoz gehiago...  
652 702 650 / 672 481 370  
Lehendakari Agirre 4 · Igorre  
maite.eileke@gmail.com

## ZIKLO-KROSA

Ziklo-krosa  
martxan

## Erredakzioa

Ziklo-kros denporaldiko lehenengo lasterketea Urduñan jokatu zan urri bigarrenaren 12an eta jokaturako atzena zemendiaren 11n izan zan Karrantzan. Zazpi lasterketa honetan, egon da Arratiako ordezkariak. Eliteko andrazkoetan Arratiako Zeko Naia Alzola, Kadete eta Junior mutiletan, Murias-Arratia taldea eta Masterretan Dimako Tiritu Ziklista Elkarteak dabiz konpetiduten.

Atzenengo lasterketak, Arbulun eta Karrantzan izan dira eta ez da aratariarik egon lehenengokoan artean. Karrantzan, M40ean Tirituko lehenengoak 45. egin eban eta Juniorretan Muriaseko lehenengoak 49.a. Arbulun barriz, Eliteko andrazkoetan, Alzola buelta batera geratu zan, eta Kadeteetan, Murias-Arratiako lehenengo biak, Gorka Amurizak eta Eneko Erdoziak, 21. eta 22. egin eben. Juniorretan lehenengoa 19.a izan zan, Joseba Torres. Master 40an, Arratiako taldeetako lehenengoa Tirituko Omar Arias izan zan 18. eginda.

## KIROL ASTEA

Ziortza Villa fondoko txirrindularia  
Lemoako Kirol Astean izango da

## Erredakzioa

Lemoako Kirol astea atzen txanpan, kirolari ezagunak ikusteko aukerea egongo da. Ziortza Villa txirrindularia, Amaia Aldai pelotaria edo Oihana Azkorbebeitia mendi korrikalaria Kirol Astea berbaldi edo probetan egotekoak dira.

Ultrafondoko lasterketan espezialdua, Ziortza Villak Donejakue bidea parau barik egin eban abuztuan 34 ordu eta 20 minututan. Urri bigarrenaren 31n barriz, Californiako Borrego Springs basamortuko Munduko Erresistentzia Txapelketan bigarren egin eban. Txirrindularia zemendiaren 16an egongo da Lemoan Kirol Astearen barruan. Elizondoko Kulturgunean *Record Camino de Santiago* dokumentala proiektuak dabe 19:00etan, eta gero *Emakumeak eta txirrindularitza* izeneko berbaldia emongo dau Ziortza Villak.

Hurrengo egunean, hilak 17, Laboral Kutxa Emakume Master Cup lehiaketako pelota partiduak jokatu dira Lemoako kirolde-

gian 16:30etik aurrera. Partiduok promozino mailako final laurdenak dira. Pelotarien artean Dimako Amaia Aldai dago eta



Oihana Azkorbebeitia 2017ko Gorbeia Suzien Mendi Lasterketan.

"irabazteko aukerak daukaz, oso ondo dabil eta" azaldu deutso BEGITURI Imanol Arrese Lemoako Pelota Klubekoak. Lagunarteko partidu bat be jokatu dabe Lemoako Ainhoa Romerok eta Ainhoa Aguilera. Ainhoa Romero eta Ainhoa Ruiz de Infante, Ana Aguilera eta Gentzane Aldairen kontra. Lemoakoak final zortzirenetan kanpoan geratu ziran.

Oihana Azkorbebeitia Lemoatx  
Trail lasterketan

Lemoatx Trail lasterketeak emongo deutso amaiera asteari. Proba nagusian, izen handiko mendi korrikalariak emon dabe izena, Oihana Azkorbebeitiak, Ismail Razgak, Silvia Triguerosek, Joseba Urbanok, Ainhoa Lendinezek eta Joxe Amunarrizek, barbarako.

Domekan, hilak 18, jokatu da, eta mendi lasterketeaz gainera, martxa be egongo da. Galapan zein ibilian egiteko, ibilbide bi dagoz aukeran, bata 24 kilometro ingurukoa eta bestea 16koa. Aurrena mendi martxa luzea abiatu da 08:00etan; ondoren mendi martxa laburra, 09:00etan, eta 10:00etan hasiko da mendi lasterketa luzea, Lemoatx Traileko proba nagusia.

# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKATURUA ETA SALMENTA

## U2T UBITE

ERAIKUNTZA MATERIALAK

Tel: 94 631 60 65 - 615 75 87 92  
e-mail: ubitemat@ubites.com  
Igorreko Industrialdea, Pab. 11F - 1A  
48140 IGORRE (Bizkaia)

ERA GUZTIETAKO  
MATERIALAK  
ERAIKUNTZARAKO

LUR BEGETALA  
KARE BIZIA

KSTELEHENETIK BERRIKUBA  
07:45-12:45  
14:00-18:30  
ZAPATUETAN  
08:30-12:30

M. Jose  
zure arropa

GALANTA

Beti bezala  
zure  
gustukoak

Agirre  
Lehendakaria 23  
48140 Igorre  
galanta@hotmail.es

94 631 90 08

[www.facebook.com/galanta.lenceria](https://www.facebook.com/galanta.lenceria)

## FUTBOLA

### Arratia bigarren liderragaz bardinduta

#### Erredakzioa

Emakumeen Euskal Ligako Arratia A taldea bigarren postuan dago 23 puntugaz, liderra dan Pauldarrak taldeagaz bardinduta. Atzen bi partiduetatik bata irabazi eta bestea galdu egin dau. Hilaren 1ean 1-3 galdu eban etxean Tolosa taldearen kontra eta hilaren 11n jokatu atzen partiduan 2-7 irabazi eban etxetik kanpo Adiskideak taldearen kontra. Datorren partidua Barakaldoren kontra jokatu dau hilaren 18an, 17:30ean Urbietan.

Arratia B taldea barriz 5. postuan dago 8 puntugaz. Hilaren 10ean jokatu atzen partidua galdu egin eban Adiskideak taldearen kontra Igorren. Datorren partidua Leioako Emakumeak B-ren kontra jokatu dabe hilaren 18an goizeko 10:00etan etxetik kanpo.

#### Gizonezkoen Arratia A eta B

Arratia A taldeak husna bardindu eban hilaren 11n Lekeition bertako taldearen kontra. Datorren partidua Dinamo San Juanen kontra jokatu dau Arratiak hilaren 17an arrastiko 16:00etan Urbietan. Igorreko taldea hamabigarren postuan dago 9 puntugaz.

Arratia B-ri jagokonez, 0 eta 1 galdu eban hilaren 10ean Zorronzakoren kontra. Datorren partidua Orduñaren kontra jokatu dabe hilaren 18an, 18:00etan etxetik kanpo. Arratia B zazpigarren dago saikapenean 13 puntugaz.

#### LemoaHarrobi

LemoaHarrobi taldeak jokatu atzen partidua bana bardindu eban hilaren 11n etxetik kanpo Cultural B taldearen kontra. LemoaHarrobik hilaren 17an arrastiko 16:30ean Arlonagusian jokatu dau datorren partidua. LemoaHarrobi seigarren dago saikapenean 12 puntugaz.

## MENDIA

### Abenduaren 1ean izango da San Kristobaleko Mendi Martxako XVI. edizioa



#### Erredakzioa

Igorreko San Kristobaleko XVI. Mendi Martxea abenduaren 1erako antolatu dau Intxaurbizkar Kultur Elkarteak. Aurreko urteetan legez, ibilbide bi dagoz aukeran, luzeak 20,5 kilometro izango ditu, eta laburrak 17 kilometro. Urtekerea San Kristobaleko plazatik izango da 08:30ean. Martxea amaitutakoan partaideentzako oparia eta kopaua egongo da. Mendi Martxearen ostean, Intxaurbizkar Kultur Elkarteak prestatutako babak jateko aukera izango dabe berrogeta hamar lagun inguruk. Izena aldeztu aurretik emon behar da.

Martxan edo-eta osteko bazkarian parte hartzeako izen ematea zabalik dago zemendiaren

28ra arte. Prezioa zazpi euro dira mendi martxea bakarrik egin gura dabenentzat eta 15 euro mendi martxan eta bazkarian izena emoten dabenentzat.

#### Izen biko auzo eta jaiak

Auzoan santu biren izenpeko ermitea dago, Elgetzuko Santa Luzia eta San Kristobal ermitea, hain zuzen be, eta martxea garagarrean egiten zan 2013ra arte, San Kristobal jaietan. Baina ibilbidea Urkiolako Parketik zehar doa eta sai zuriaren babesa dala-eta, askotan aldatu behar izaten eben ibilbidea. Hori dala-eta, antolatzaileak mendi martxea, auzuneko beste jaietara, hau da, abenduan ospatuten diran Santa Lutzi jaietara, pasetea ebatzi eben, nahiz eta San Kristobaleko Martxa izena mantendu.

## MENDIA

### Mendi jardunaldiak egingo dira Zeberion

Austarri Mendi Taldeak jardunaldiak antolatu ditu zemendiaren 18tik 23ra. Jardunaldiok domekan, hilak 18, hasiko dira 12 kilometroko mendi ibilaldi eta babajanagaz. Hurrengo astean, astelehen, eguzten eta barikuan, *Kilian Jornet: Path to Everest* dokumentala, *Lur Basterretxearen Karibu Tanzania* berbaldia eta *Juan Vallejoaren Nire mendiak* ikus-entzunezkoa ikusteko aukerea egongo da.

#### Erredakzioa

Urtekerea Arlaban mendietatik izango da. Partaideak, 08:00etan batuko dira plazan eta autobusez joango dira Krutzeta mendatera. Ibilbidea Jarindo (895 m.) eta Albertia (867 m.) mendi tontoretatik pasauko da Legutian amaituteko. Bazkaria Otxandion izango da.

#### Everest, Kilimanjaro eta Karakorom

Jaume Martí eta Josep Serrak zuzendutako *Kilian Jornet: Path to Everest* dokumentalean, Kilian Jornet mendiko atletak bere alderik intimoena azaltzen dau, bere bildur, kontraesan eta ilusinoak agerian itxiz. Filma hilaren 19an egongo da ikusgai.

Hilaren 21ean, *Karibu Tanzania* izeneko berbaldia emongo dau

Lur Basterretxeak. Basterretxeak Tanzaniako leku zoragarrietatik ibilbidea eta Kilimanjaro mendiko igoera azalduteaz gainera, hango lagunak bizi izandako esperientzia kontauko dau.

Amaitzeko, hilaren 23an, Juan Vallejoaren *Nire mendiak* ikus-entzunezkoan, Karakorom eta Himalaiako mendi altuenetarako espedizio baten barri emongo dau. Espedizio haretan, 6.000 metroko tontor bat, 7.000ko beste bat eta 8.000ko beste bat eskalatzeko helburua eukien espedizionoak. Juan Vallejo bera egotekoa da Zeberion, bere bizi-penak kontetan. Emonaldi guztiak 20:00etan izango dira.

Aurtengoa, zazpigarren edizioa da eta oin arteko balantze positiboa egin dabe antolatzaileak.



**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es

**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

## MUSIKEA

Gorka Andrakaren *Chiribitas* liburuaren aurkezpen musikatua Artean

Cloverwind taldea.

## Erredakzioa

Gorka Andra kazetariak *Chiribitas. Historias que prenden vida* liburuan munduko leku askotan girotutako 72 narrazio batu ditu. Cristina Saezen ilustrazioak ditu eta Libros en Accion argitaletxeak argitaratu dau liburua. Zemendiaren 18an, 13:00etan, izango da aurkezpena Arteko Herriko Bentan. Bertan egotekoa da egilea bera, liburuaren barri emoten eta Maria Uriarte, liburuak ipuin batzuk kontatzen. Musikariak be egongo dira aurkezpenean, kontakizuna girotutuz.

Gorka Andra Ibargaray (Armintza, 1968) kazetari ezaguna da bere Mar de fueguitos irratiko saioagaitik. Saioa, Radio Euskadin sortu zan 2000. urtean eta han egon zan bost urtez; gero Tas Tas irratiara pasau zan eta handik 97 Irratiara.

## Azaro Musikala

Liburuaren aurkezpena herriko hainbat alkartek antolatuten daben Azaro Musikalaren barruan dago. Aurten be hainbat jarduera eta kontzertu antolatu dabez zemendiaren 9an hasita. Bigarren hamabostaldi honetan be ez da faltauko musika Artean.

## Zemendiak 16, barikua

20:00etan, Begi Argiak kamara koruaren kontzertua Kultur Etxeko Areto Nagusian.

## Zemendiak 18, domekea

13:00etan, Gorka Andrakaren *Chiribitas* liburuaren aurkezpen

musikatua Herriko Bentan.

Zemendiak 22, eguna  
Santa Zezilia Eguna

18:00etan, Musika Eskolako kontzertua Kultur Etxeko Areto Nagusian.

18:15ean, kalejireia.

18:45ean, kontzertu korala Andra Mari eleizan. Luis Iruarizaga abesbatza, Musika Eskolea, Arteko eskolea eta Arteko umeak.

## Zemendiak 23, barikua

15:00etan, Arteko Eskolan Musika ere bai! jaialdia, jente guztientzat.

19:00etan, disko festa Keima taldeagaz Kultur Etxeko sotoan.

## Zemendiak 24, zapatua

20:30ean, Lowe taldearen kontzertua Batzokian.

## Zemendiak 30, barikua

20:30ean, Cloverwind taldearen kontzertua Kultur Etxeko Areto Nagusian.

## BERTSOLARITZEA

## Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa jokatu da Igorren



Berriatuako kanporaketako irudia.

## Erredakzioa

Zemendiaren 25ean, 17:00etan, jokatu da Igorren kiroldegian Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoa. Bertan, Eneko Abasolo "Abarkas", Malen Amenabar, Oihana Bartra, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal eta Beñat Ugarteketa neurtuko dira finalerako pasea lortzeko. Finala, abenduaren 15ean jokatu da Bilbao Arenan.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udagoieneko fasean, 30 bertsolari neurtu dira. Sei bertsolariz osotutako bost kanporaketa egin dira. Atzena, Berriatu jokatu zan zemendiaren 4an eta Oihana Bartrak irabazi eban. Hiru

finalaurreko egongo dira, bako-txean sei bertsolarik kantauko dabe. Lehenengoa, Berrizen izango da hilaren 18an; bigarrena, Igorren 25ean eta atzena Lekeition, abenduaren 1ean. Finalaurre bako-tzeko irabazlea zuzenean pasauko da finalera eta gainontzekoak puntuazioaren arabera. Malen Amenabar da sailkapenean buru 480,50 puntugaz.

## Arratiarrik ez

Finalaurrekoetan ez dago arratiarrik. Udagoieneko fase honetan parte hartu dauan bakarra Iñaki Iturriotz izan da. Iturriotzek Santurtzin kantau eban urri bigarrenaren 14an, baina ez eban lortu finalaurrekorako pasea.

## MUSIKEA

## Kontzertuak Igorren hiru tabernatan eta bertso bazkaria Kiñu Gaztetxean

## Erredakzioa

Zemendiaren 17an, V. Rockupa Fest ospatuko dabe Igorren Kiñu Gaztetxeako. Hiru kontzertu dagoz programata egun horretarako. Swing-jazz egiten dauan Bilboko Gurutze's Manouches taldea eta Arratiako beste talde bik joko dabe Igorren tabernatan.

Gurutze's Manouches taldeak Axular Herriko Tabernan joko dau 21:00etan; Rock Covers, bersinoak egiten dauan Arratiako taldeak Kukuma tabernan eskainiko dau kontzertua 22:30etik aurrera eta Irrekoñozibles punk taldeak Troka tabernan animauko dau gauba, gauertitik ordu txikitara.

Kontzertuez gainera, Rockupa Fest-ek eukiko dau ospakizunik egun argitan. Izan be, bertso bazkaria egongo da Kiñu Gaztetxean 14:30ean eta bazkalostean, jolasak. Bazkarirako tiketak Igorren Axular Herriko Tabernan, Kukuman, Trokan, Gau Loran eta Txaparro tabernetan erosi daitezke 7 euroan.



## Abenduaren 1ean, hardcore eta metalcore

Abenduaren 1ean, zapatua, hardcore eta metalcore soinuak astinduko dabe gaua Kiñu Gaztetxean 21:00etatik aurrera. Antolatuzaileen arabera, Arratiako Uckaia hardcore taldeak, Albaceteko No Drop For Us metalcore melodikoa jotzen dauan taldeak eta Urdulizeko Holy Txalak hardcore taldeak baiezatu dabe euren partaidetzea egun horretarako.

## BERTSOLARITZEA

## Ander Elortegik eta Xabat Galletebeitiak Arantzazun kantauko dabe

## Erredakzioa

Zemendiaren 24an, 14:00etan, Arantzazuko San Martinetako VIII. bertso bazkaria antolatu dau Arantzazuko EH Bilduko kultur batzordeak Herriko Tabernan. Bertsoak kantetan, Ander Elortegi eta Xabat Galletebeitia egongo dira.

Biak dabilz parte hartzean aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketan eta biak sailkatu dira finalaurrekoak. Xabat Galletebeitiak Berrizen jokatu dau finalaurrekoa zemendiaren 18an, eta Ander Elortegi Lekeition izango da abenduaren 1ean. Arantzazun, giro lasaigo baten jardungo dabe biak.

## Sarrerak 20 euroan tabernetan salgai

Zemendiaren 22ra arte erosi ahal izango dira bertso bazkarirako sarrerak Arantzazuko Herriko Tabernan eta Montero tabernan, eta Igorren Axular Herriko Tabernan.

## BERTSOLARITZEA

## Andoni Egaña eta Aitor Mendiluze bertsolariak Zeanurin

## Erredakzioa

Zeanuriko Kultur Batzordeak eta bertso eskoleak antolatuta, bertso afaria egongo da Zeanurin zemendiaren 17an. Andoni Egaña eta Aitor Mendiluzek botako dabez bertsoak. Izena bezpera arte emon daiteke jabiladuen tabernan.

Andoni Egaña (Zarautz, 1961) ez dau aurkezpenik behar; izan be, bera da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia gehiagotan irabazi dauan bertsolaria. Lau ediziotan txapeladuna eta 1986an parte hartzean hasi zanetik, 2009an agurtu zan arte finalista izan zan edizino guztietan. Idazlea, kazetaria eta euskaltzain urgazlea da Egaña.

Egañagaz batera, Aitor Mendiluze (Andoain, 1975) izango da

Zeanurin. Mendiluze Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera 5 aldiz heldu da eta 2017an txapeladunorde izan zan, Maialen Lujanbiogaz buruz buruko egin ostean.



## ONDAREA

# Mauriziaren lobearen amamaren erretratu eta material bila dabil

### Erredakzioa

Amama Maurizia Aldeiturriaga eta aitita Benantzio Bernaolaren gaineko lan bat egin gura dau euren loba Maite Bernaolak. Hori dala-eta, amamaren erretratu edo bideoak daukien beragaz kontaktuan ipinteko eskatzen deute.

Arratia eta Zeberio jente askok euki leikiela Maurizia Aldeiturriagaren erretratuak bere albumetan uste dau Bernaolak. "Lantxo bat egiten konbidatu gura zaitut, etxeko bazterren baten mimo handiz gordeta dozun argazki bilduma arakatzea eta hautsa kentzea. Seguruena, izan dozu gazte denporan Maurizia ikusteko

modua erromeriaren baten, Leon albokariagaz, Fasio soinuaria-gaz, Benantzio bere senarragaz, Joaquin Gotigaz... Amama eta aititaren gaineko lan bat egiteko aspaldidanik dodan barruko harrari jaten emoteko gogoak eroan nau eskakizun hau egitera. Egiten dodan lana egiten dodala zeinen bitartez lortu dan argazkia aitatu dot". Baleiteke 8 mm.ko grabazioak be eukitea.

Bernaolak, lan hori egiteko argazkia edo bideo txatala ixten deusnari bueltan izango dauala emoten deutso berbea. Beragaz kontaktuan ipinteko, 645 735 877 telefonora deitu edo [maitebernaola67@gmail.com](mailto:maitebernaola67@gmail.com) helbidera idatzi.



## KIÑU GAZTETXEA

# Euskerearen gaineko iges jokoaren Igarreko Gaztetxean



Gazte asanbladako kideak probau eben jokoa.

### Erredakzioa

Joko barriak "Kiñu misioa: euskararen salbazioa" dauka izena. Partaideak, gelan planteetan diran enigma, pista, matematika problema, asmakizun eta abarrak ondo asmatu behar dabez misioa bete eta gelatik urteteko. Escape Roometako jokoak abenturazko jolas fisiko-mentala dira eta talde lana daukie helburu. "Kiñu misioa: euskararen salbazioa" Gaztetxeko bigarren iges joko da "Johnnyren logela"ren ostean.

Oingo honetan, Zuzterturen burua topau eta gelatik urten behar dabe partaideak. "Francoren langilea izandako Miguel doktorea, mundu guztia espainol bihurtzeko eta euskera desagertu arazoteko laborategia eregi dau Igarren. Zure

misioa honako hau izango da: Miguel doktorearen laborategian sartu eta Zuzterturen burua berreskuratu". Holan aurkezten dau jokoa Ismael Pereira Kiñuko Asanbladakoak promoziozko bideoan. Horretarako ordu eta erdi daukie partaideak.

### Urtebeteko lana

Jenteak gura dauana pagetan dau eta aurreko jokoaren irabaziaz egin dabe oingo. Sortzea urtebeteko lana izan da eta beste urtebete edo bi egongo dala pentsetan dau Pereirak. "Joko hau egiteko idea bota neban, Kiñuko guztien artean asanbladea egin eta baietz urten zan". Euskera Planekoan oneritxia be izan eban jokoa eta publikoari zabaldu aurretik Kiñuko kideak eta Euskera Planekoak probau eben.

## MUSIKEA

# Kalejirak eta kontzertuak musikearen zaindariaren omenez

### Erredakzioa

Zezipi Deuna musikarien zaindariaren eguna ospatuteko Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskoleak emonaldiak antolatu ditue. Arteko Kirol, Kultur eta Euskera Taldeak be (AKKT), Arteko Azaro Musikalaren barruan hainbat ekitaldi antolatu ditu, eta Zeanuriko Abesbatzak eta herriko trikitilariak be ibiliko dira kalejiran.

Arratiako Musika Eskoleak eta Luis Iruarizaga Abesbatzak kontzertu korala emongo dabe Zezipi Deunaren egunean bertan, zehazki 22, Arteko Andra Mari eleizan, eskola eta herriko umeak batera, 18:45ean.

Egun bi beranduago, zapatuan, Igarren emongo dabe kontzertua Arratiako Musika Eskolakoak eta Luis Iruarizaga Abesbatzak, oingoan, Igarreko ludotekako umeak batera. Kultur Etxean izango da 19:30ean.

Zeanurin be zapatuan ospatuko dabe eguna. Eguerdiko 12:30etik aurrera, herriko txistulariak eta abesbatza herriko zehar ibiliko dira kantetan. Lemoan be poteo musikatu egongo da hilaren 23an, 18:30ean, Kresala tabernatik hasita, Euskal-diari hasikerea emoteko.

Programa desbardinetan, musika jardueraz beteta dago zehazki.

## DUNBA

# Antzasti euskaldunon etxea

Iraganetik, ikasi eta gozateko museo barri bat zabaldu dabe Artaunen.

### Dimako Ugarana eskolako 6. mailako ikasleak

Antzasti Artaunen egindako museo 6 urteko lanaren ostean, zabaldu eben udabarrian. Gu Dimako eskolako 6. mailako ikasleak igazko ikasturtean joan ginan bertara. Aurten be euren gaitasuna joatea pentsau dogu eta galdera batzuk egin deusez.

Museoa ahizta bik sortu dabe, euren aitak itxitako baserrian; talde handiak datozanean Artauneko auzokide bik laguntzen deusez. Artaunen egitea ebatzi

dabe auzoa asko maite dabelako eta nahiz eta Bilbon bizi denpora asko emon dabelako bertan.

### Atzeak erakutsiko dau, aurreak zelan jantzatu

Antzasti, museo bihurtutako baserria da, ez da museo arrunta. Bertan sartukeran Arratiako tranbiak egiten eban ibilbidea egiteko aukerea daukagu. Arratiako baserrietik, Bilboko uriko etxetara. Hau da XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran emon ziran aldaketak, era erakargarri baten ikusi daitezke. Ahizta biak indus-



trializazio garaia aukeratu dabe, historian zehar gundik hurbilen dagoan aldaketarik garrantzitsuenak izan dalako.

Museoan aurkitu geinkezan baserriko tresna gehienak, euren aitak edo auzokoak emondakoak dira eta urikoak Bilboko etxe



batetik hartzeako aukerea euki eben.

Eurentzat, museoak piezarik garrantzitsuenak ezkontza jantzi bat da, Bilboko eleiza baten ezkontutako andra batena, jantzi baltza 1881. urtekoa.

Irakurri dozuen moduan Antzasti oso leku interesgarria da, animau eta joan ikusten!

## AGENDEA

## ZEMENDIAK 15

## AREATZA

19:00etan, Euskaraldiaren gaineko UEMAREN formakuntza saioa. Udaletxeko Areto Nagusian.

## ARTEA

Aurrekontuetako batzarra eskolako umeakaz. 19:00etan, 2. auzo batzarra Kultur Etxean. Herriko Plaza, Astui behekoa, Kalleja eta Infante.

## IGORRE

18:00etan, sukaldaritza ikastaroa *Zer egin gure kontsumo taldeko saskiarekin?* Kiñu Gaztebean.

## ZEMENDIAK 16

## ARTEA

18:00etan, aurrekontuak. Alkarteetakoakaz batzarra; 19:00etan, hirugarren auzo batzarra.

20:00etan, Begi Argiak kamara koruaren kontzertua Kultur Etxean.

## AREATZA

19:00etan, Eraiki Areatza, 18 urtetik beherakoentzako saioa. Gaztelekuan.

## BEDIA

17:00etan, *Activa tu voz* ikastaroa. Eskolan.

17:30ean, dependenziaren prebenzioaren gaineko berbaldia nagusientzat. Liburutegian.

18:30ean, imintzi tailerra frontoian.

## DIMA

19:00etan, Abizarietako antolatuta Kike Amonarizen berbaldia Euskaraldiari buruz, Abaroa Aretoan.

## IGORRE

19:30ean, Caritasek antolatuta, alkartasun afaria. Batutakoa Askabide alkartearentzat izango da.

20:00etan, nagusientzako ipuin kontaketea. Ines Bengoa. Liburutegian.

## LEMOA

19:00etan, andrak eta birindularizaren gaineko berbaldia Elizondo Kulturgunean.

20:30ean, *Blessy* dokumentala. Ondoren solasaldia eta kopaua Karabie Gaztebean.

## ZEANURI

19:00etan, *Azken amasa arte* filma Kultur Etxean.

## ZEMENDIAK 17

## AREATZA

22:00etan, Dirty Old Band-en kontzertua Bixerren.

## DIMA

09:00etan, Zamakola alkarteak antolatuta,

Dimako auzuneak ezagutzuz mendi martxea.

## IGORRE

Rockupa Fest. Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

22:00etan, zinea *Ha nacido una estrella* Lasarten.

## LEMOA

16:30ean, Emakume Master Cup. Frontoian.

## ZEANURI

21:00etan, bertso afaria. Egaña eta Mendiluze.

## ZEBERIO

10:00etan, Udalak eta Gure Indarra jubilatuen alkarteak antolatuta, *Bateriadun makinak lorategirako eta orturako* ikastaroa Jon Etxebarria baso teknikariaren eskutik. Gaztelekuan.

## ZEMENDIAK 18

## AREATZA

Lamino Kirol Klubaren 14 kilometroko urtekerea Urduña eta inguruertako mendietara.

## ARTEA

13:00etan, *Chiribitas* liburuaren aurkezpen musikatua Herriko Bentan.

## IGORRE

17:00etan, zinea *Ana y Bruno*; 19:30ean, *Ha nacido una estrella* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

08:00etan, Lemoatx Trail.

## ZEBERIO

08:00etan, Austarriren urtekerea Albertia-Jarindora eta bazkaria.

## ZEMENDIAK 19

## ZEBERIO

20:00etan, *Kilian Jomet: Path to Everest* dokumentala udaletxean.

## ZEMENDIAK 21

## BEDIA

18:30ean, Beatriz Elgezabal *Ttak!* bakarriketa

## Hodei Magoa Igorreko Kultur Etxean

Zemendiaren 17an, 18:00etan, Hodei Magoa konpainiak *Ilusioaren indarra* ikuskizuna eskainiko dau Lasarte Aretoan.

*Ilusioaren indarra* ikuskizun "apurtzailea" da. Ordu bete luze baten, publikoak agerpenak eta desagerpenak, eskapismoak eta ezinezko igarpenak ikusiko ditu. Familia osorako ikuskizuna da, "freskoa, alaia eta dibertigarria".

Hodei Domingo, aktorea, umoristea, aurkezlea eta showmana da. Magiaren munduan 6 urte gaz hasi zan. Espainiako ilusionismo elkarteak kidea da.

umoretsua liburutegian.

## ZEBERIO

19:00etan, Lur Basterretxearen *Karibu Tanzania* berbaldia, udaletxean.

## ZEMENDIAK 22

## ARTEA

18:00etan, sukaldaritza ikastaroa *Elikadura kulturaren parte, munduari begira* Herriko Bentan.

Santa Zezilia Eguna. 18:00etan, Musika Eskolako kontzertua Kultur Etxean; 18:15ean, kalejirea; 18:45ean, kontzertu korala Andra Mari eleizan.

19:00etan, berbaldia *Basogintza Bizkaian, eta orain zer?* Hizlaria Keko Alonso. Kultur Etxean.

## IGORRE

18:00etan, 3-6 urte bitartekoentzako ipuin kontaketea; 19:00etan, 7 urtetik gorakoentzat. Ines Bengoa. Liburutegian.

## ZEANURI

19:00etan, *Volar* dokumentala eta barriketaldia.

## ZEMENDIAK 23

## AREATZA

18:30ean, txupinaren jaurtiketea eta txapen banaketea; 19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua eleizan. Euskaraldia.

## ARRATIA

Euskaraldiaren hasikerea, 11 egun euskaraz.

## ARTEA

15:00etan, eskolan Musika ere bai! jaialdia; 19:00etan, disko festa Keimagaz Kultur Etxean.

18:00etan, Beldur Barik-en sari banaketea.

## DIMA

Euskaraldiaren hasikera ekitaldia.

19:30ean, antzerkia *Isilduen museoa* Eskolan.

## IGORRE

19:00etan, Arratia Kantuz eta Kantu bat garak hasikerea Euskaraldiari. Gau Lora tabernatik hasita.

## LEMOA

18:30ean, poteo musikatua Kresala tabernatik hasita; 19:30ean, Euskaraldiko hasikera ekitaldia Jubilatuen tabernan.

## ZEBERIO

20:00etan, Juan Vallejoren *Nire mendiak* ikus-entzunezkoa eta otean barriketaldia udaletxean.

## ZEMENDIAK 24

## ARANTZAZU

14:00etan, EH Bilduko kultur batzordeak antolatuta, San Martinetako VIII. bertso bazkaria.

## AREATZA

20:00etan, antzerkia *Tomiris. Mendeku zilegi baten historia*. Udaletxeko aretoan.

## ARTEA

20:30ean, Lowe taldearen kontzertua Batzokian.

## IGORRE

00:00etan, *Poesia eta musikearen gaua. Silvio Rodriguez gure artean* Liburutegian.

19:30ean, Luis Iruarizaga Abesbatza, Arratiako Abesbatza, Arratiako Musika Eskolako ume eta ludotekako umeen kontzertua.

22:00etan, zinea *La sombra de la ley* Lasarten.

## ZEMENDIAK 25

## AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Orozko inguruko lau harrobi ezetuteko aukerea Iñaki Garcia Uribe eta Javi Castroren eskutik.

## IGORRE

12:30ean, indarkeria mabistearen aurkako nazioarteko eguneko manifestazinoa.

17:00etan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa. Kiroldegian.

17:00etan, zinea *Small Foot* (euskeraz); 19:30ean, *La sombra de la ley* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Ganzabalek antolatuta, Obxandio-Durango GR38, ardoaren eta arrainaren ibilbidearen 7. etapa.

## ZEBERIO

10:00etan, Bertoko Produktuten Azoka.

## ZEMENDIAK 26

## AREATZA

19:00etan, jantza ikastaro irekia plazan. Euskaraldia.

## LEMOA

19:00etan, Olentzero. Batzarra udaletxean.

## ZEANURI

19:00etan, Karlos Aretabaletaren berbaldia

Arratiako hitanoaren gainean. Kultur Etxean.

## ZEMENDIAK 28

## AREATZA

18:00etan, bisita gidatua herriitik Mikel Urrizagaz.

## ZEMENDIAK 29

## AREATZA

18:00etan, Eraiki proiektuaren laugarren saioa: espazioen erabilera definitu. Ekitaldi aretoan.

## ARTEA

18:00etan, Liburuforuma, irakurketea Andran Gelan.

## ZEMENDIAK 30

## AREATZA

Berbodromoa. 18:00etan, helduentzat; 19:00etan, gazteentzat. Euskaraldia.

## ARTEA

20:30ean, Cloverwind taldearen kontzertua Kultur Etxeko Areto Nagusian.

## DIMA

19:00etan, *Azken amasa arte* filma Abaroa Aretoan.

## IGORRE

18:30ean, Bulkada berrien garai da-ren Arratiako aurkezpena Kultur Etxean.

20:00etan, antzerkia *Pa ti pa mi* Kultur Etxean.

## ZEANURI

Asterriako jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

## ZEBERIO

19:00etan, Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia, *Zeberioko euskerearen balioa* udaletxean.

## ABENDUAK 1

## AREATZA

12:30ean, Beatriz Egizabal *Ttak!* bakarriketea. Udaletxeko aretoan.

## IGORRE

08:30ean, San Kristobaleko Mendi Martxea. San Kristobaletik urtenda.

21:00etan, kontzertuak, Uckai, No Drop For Us eta Holy Txala Kiñu Gaztebean.

## ZEANURI

Asterriako jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

## ABENDUAK 2

## AREATZA

10:00etan, orientazio proba Saldropon (Zeanuri). Ibilbide luzea (16 km.); laburra (9 km.).

11:30ean, "II. Euskera plazara atera" herri irakurketea.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## BASERRIA SALGAI

Baserri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m<sup>2</sup>, 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herriatik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

## DANERIK

## TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonon balezko hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

## GELA ALOKAIRUAN LONDONEN

Autobusez erdigunetik 30 minututara dagoan gela alokatzen da Londonen garagarrilaren 14tik urri lehenengoaren 29ra. Interesdunak idatzi [ugerka2@hotmail.com](mailto:ugerka2@hotmail.com) helbide elektronikora.

## ETXE BILA

Arratiatik baserri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

## ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten

baserri dotore eta polit baten alokairua konpartiduteko pertsonen bila gabiz. 450 euro. Ortu, tenis zelaia eta bainua hartzeako aukerea. Interesdunak 607 482 499 telefonora deitu.

## ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabizlan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litzakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

## ZAINZTA LANA

Laguntzailea behar dogu edadeko andra bateri etxeko lanak eta konpainia egiteko. Interesdunak deitu 657 777 542 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Hodei Magoaren *Ilusioaren indarra* ikuskizunerako.

Edorta Alonso (Zeanuri)  
Maite Belaustegi (Igorre)



**2** Bizkaiko Bertsozale Elkartek emondako bina sarrera Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Igorreko finalaurreako.


Gotzone Amuriza (Igorre)  
Ziortza Lekue (Igorre)



**3** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

**DENPORA-PASA**

IMAN OLATU




**EZKERRETIK ESKOIERA**

- 1.- Omen. Suberte. 2.- Konsonantea. Greziako ugarte. Konsonantea.
- 3.- Bits. Zeozer erreten danean.
- 4.- Arrainen hotsaren onomatopeia. Birritan, eperraren kantuaren onomatopeia.
- 5.- Bildurti. 6.- Legez, moduan. Logaritmoaren laburdura.
- 7.- Erbioa. Soldata. 8.- Konsonantea. Tibeteko budismoaren aurretiko erlijioa. Berrogeita hamar erromatar. 9.- Siku. Zer.

**GOITIK BEHERA**

- 1.- Erabilbidea. 2.- Bat erromatar. Karta joko bat. Letra bat. 3.- Balioko. Zeozer ez dala sinisten adierazoteko interjekzioa. 4.- Ordaindu barik. Letra bat. Sentiberatasunik ez daukana. 5.- Osmioa. Kilin-..., kili-kolo. 6.- Konsonantea. Lobeko. Azken letra. 7.- Marrazkilari.



Topau aditz trinko iragankorren zazpi forma.

E	N	O	A	L	A	K	G	O	A
O	D	E	M	A	T	X	A	Z	U
S	E	R	R	U	B	O	R	J	A
D	R	G	I	A	Z	T	A	I	D
I	I	K	O	R	B	A	B	U	Z
P	T	N	A	T	O	I	I	Z	O
T	X	A	O	L	E	B	L	O	R
U	E	G	R	E	D	O	Z	E	B
A	Z	A	R	O	A	G	U	Z	N
L	U	R	A	P	K	I	Z	A	U
B	E	G	O	R	A	T	U	K	A
I	D	A	K	A	R	S	T	E	N
Z	O	R	I	A	G	O	A	S	E
O	K	E	R	T	U	K	O	D	A
Z	I	R	I	N	K	O	L	E	A

**A  
K  
I  
M  
I  
K  
O**

K  
a  
i  
l  
o  
R  
e  
n



umean modu  
**sem**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 52 96 • semmodu@hotmail.com

**begitu**  
orria eta abete

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 73

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendietak, 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel. 609 487 830 • 609 200 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a Tf: 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia Tf: 609-79-40-54

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAI

Pinturas Arantia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**NAIARA** Hartz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

# AZAROAK 25 DE NOVIEMBRE

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA  
DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

PANKARTA ATZEAN  
TAILER BATEAN  
HITZALDI BATEAN  
LAGUN ARTEAN...

BERRIZ ERE KALERA  
ATERATZEKO ETA  
ELKARTZEKO  
GONBIDAPENA DUZUE  
AURTEN

**ANDROK MARTXAN, MATXISMOARI PLANTO!**

AZAROAK 25 / 12:30 / Igorreko Kultur Etxetik hasita  
MANIFESTAZIO ZARATATSUA

**INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BORROKAN KONTZIENTZIAK PIZTU ETA MUGITU!**

**INFORMAZIO GEHIAGO HEMEN:**

688 62 73 93

94 631 1717

berdintasuna2.ariatia@bizkaia.org

Berdintasuna Aariatia

Mazala  
Zeaniko emakume  
taldea

Arteako  
emakume  
taldea



Arratiako  
Udalen  
Mankomunitatea  
SARDINTASUNARLOA  
ÁREA DE IGUALDAD

# begitu

ariatia ubide zeberio

## ez da debalde



**Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!**